

ERRENTERIA / Irakurtzea denbora-pasarik onena

AIZPEA AMAS

Dendan sartu eta umeak atzera eta aurrera ibiltzea ohikoa izaten da, gurasoak gelditzeko esaten ari zaizkien bitartean. Horrelako egoerak saihestu eta batik bat irakurketa sustatzeko asmoz, Casa Aramendian hainbat liburu jarri dituzte haurren eskura, eta baita helduentzako ere.

Udal Liburutegiarekin elkarlanean, 40 liburu jarri dituzte dendaren barruan dagoen VIP kalean. Haurrentzako era guztietakoak daude: didaktikoak, poesiakoak, fikziozkoak... Helduentzako, berriz, bilduma tematikoa izango da, eta aldatzen joango dira. Ekimenaren lehenengo sortan edoskitzearen gaineko liburuak dituzte. Liburu gehienak euskarazkoak izatea da ekimenaren helburua; hamar liburutik bederatzi.

Helduentzako liburuez gain, haurrenak ere aldatzen joango dira; biak ala biak hiru astean behin. Hain justu, datorren astean tokatuko zaie berriro aldatzea. Ordurako ere aukeratu dute edoskitzearen bilduma tematikoa ordezkatzeko duena. Turismo lokalaren gaineko liburuak izango dira. Javi Aramendia dendako arduradunak azaldu duenez, bezeroek eskatu dizkiete mota horretako liburuak. Haurrentzakoek artean literatura aukera mantetzen saiatuko dira, nahiz eta tituluak ezberdinak izan. Aramendiak azaldu du 7 urtera arteko haurrei daudela zuzenduta.

Idea nondik datorren ere argitu du arduradunak: Tolosako anbulatorioetik. Bera tolosarra da, eta anbulatoria joan zen batean altzari bat ikusi zuen liburuz beteta, eta hor piztu zitzaion bonbila.

Berez, duela bi urte hasi ziren liburuak dendan jartzen; liburu propioak. Baina horrek arazoak sortzen zizkien: eurek erosi behar zuten materiala, erraz hondatzen ziren liburuak, eta ez zegoen aukerarik (beti berdina ziren).

Behin liburutegiaren ideia bururatu zitzaientean udal liburutegiko arduradunengana jo zuten, eta Aramendiaren esanetan, lehenengo momentutik egon dira prest ekimenarekin bat egiteko.

Hala, bi aste daramatzate liburutegiak utzitako materialarekin dendan, eta bezeroak eta baita eurak ere "oso pozik daudela jakinarazi du Aramendiak: "Zoriondu ere egin gaituzte ekimenarengatik.

Errenkoalde

Dendako arduraduna izateaz gain Errenkoaldeko presidenteordea ere bada Aramendia, eta Tolosatik ideia hartu zuenean, Errenkoaldera eraman zuen. Hala, herriko denda guztien artean saiatu ziren ideia martxan jartzen. Aramendiren esanetan, denda bakoitzak hamar liburu izatea zen asmoa, eta astetik atera denden artean aldatzen joatea.

Orduan, ordea, ez zen aurrera atera, baina Aramendiak animatzeko deia egin die herriko gainontzeko merkatariei.